

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea

RIEV, 33-1. zk., 1988-01/06: 57-67.

Unamuno hil zela mende erdi bat bete berriak eman du aukera aipamen franko egiteko.

Eta merezia dena, neurri honetako gizonak ez baitira oso bakan baino jaiotzen, eta, beraz, hiltzen; kasu honetan bereziki heriotzak du esangura nagusia: heriotzaren aurka, hil nahi ezik, joan baitzaio bere bizi guztia agonia-borroka batean don Migeli.

Esan da laudorio franko, eta asko merezia; egin da kritika apur bat ere, askotan arrazoiz egina; euskaldunoi bereziki dagozkigun ohizko gaiak: *Euskalerrria* eta *euskara*, aipatu ditut nire aldetik diskretoki, ez baitut honelako efemerides bat mikaztu nahi izan, baina ez diot gure herriko *Unibertsitatea* aipatu ere egin, arrazoin beragatik, auzi hau bereziki gordina baita don Migel de Unamuno bezala unibertsitari bat, eta karguduna, izan denez gero.

Orain, Oñatiko Unibertsitatez idaztera noanean ezin dut aipatu gabe utzi, nola baten bidez besterik ez bada ere, Unamunoren ahulezia hau.¹

¹ *Unamuno y el Vasceuce*, Martín de Ugalde, 2ª Edición, Ediciones Vascas, Donostia. "Constituye un gran obstáculo para la difusión de la cultura vasca", cap. 3, "Universidad para los vascos", pág. 28.

"Y en cuanto al segundo punto: a los vascos siempre se nos ha negado el acceso a la vida cultural propia, y aun a la cultura en sí, aun a la que nos llega en castellano, porque no tiene otro significado la negación sistemática de una Universidad que nos ha venido haciendo de España.

"O sea, que esa limitación de la cultura que Unamuno atribuye al uso de nuestra lengua, parece más bien que ocurre al revés, que nos viene de los mismos que le están estrangulando la vida al euskara, que viene por los caminos por donde nos está llegando el castellano a la fuerza, porque quieren imponernos una forzada dependencia cultural. Y a Unamuno no se le ocurre reclamar una Universidad para el País Vasco; él, siendo vasco, tiene que ir a estudiar y a formarse y a cumplir su labor docente fuera del país, y, sin embargo, no pone a esta denigrante limitación discriminatoria (tanto geográfica, como económica, como cultural) reparo alguno, no reclama este derecho de su pueblo a la cultura, aunque sea la que nos llega en castellano, y se contenta con echarle toda la culpa de nuestro supuesto retraso cultural a la humilde lengua vasca.

"Ya nos detendremos en otro capítulo sobre el problema universitario.

O.C., "Otra vez con la Universidad", p. 36.

"¿Por qué no reclamó don Miguel de Unamuno una Universidad para su pueblo? ¿Sería que no observó el fenómeno?

"Me dice Andrés María de Irujo que en sus tiempos de estudiante en Madrid hicieron una encuesta que fue publicada en su totalidad en la obra *Pro Universidad vasca* (Madrid, 1932, págs. 21-22), en la que don Miguel contestó: "Soy partidario, pero no soy entusiasta de ella. No tengo gran fe en la Universidad que, de modelarse bajo el tipo conocido, resulte una oficina de títulos académicos más o un centro bajo el dominio de Su Majestad el Catedrático. Creo que el no haber tenido los vascos Universidad propia ha redundado, a fin de cuentas, en beneficio suyo. Antes existía en Alemania una sabia costumbre. Consistía en que los estudiantes alemanes hacían cada curso en una Universidad distintas. Es muy conveniente el viajar y familiarizarse con gentes de horizontes nuevos".

Y surge de nuevo la pregunta de siempre: ¿Por qué no hizo esta recomendación para la Universidad española, a la que vendría bien airearse un poco fuera de España? A un vasco le viene bien ir a Valladolid; ¿es que le vendría tan bien a un vallisoletano o a un salmantino viajar a Bilbao o a San Sebastián o a Pamplona o a Vitoria?

Ez nuke, bestela, barkaziorik.

Hemen, Aita José A. Lizarralde, prantziskotarra, izan da Unibertsitate honetaz berri zehatzak eman dizkiguna. Lan honek bakarrik gaitzeten du orain gutxi bere argazki batekin Zaldibiko udaletxean egin duten itsusikeria.² Unibertsitate falta nabarmena nozitu duen EuskalERRI honek eman behar lioke garrantzia Oñatin orain lau mende paseak sortu zen, sortu zuten!, Unibertsitate honi. Sorrera honen inguru sozial eta politikoari; bai baitago hemen zer ikasirik euskaldunontzat.

Aita Lizarralderi esker eman ahal izango dugu gaurko hausnarketa hau.

Esan dezagun hasieratik, hemen, biografiatua, Unibertsitatearen sortzailea bera, dela interes handiena duena; hala ere, gizon honetaz zerbait esaten hasi baino lehen, komeni da XVI. mendeko Unibertsitatea nolakoa zen esatea.

Garai hartako Unibertsitatea Elizaren eta elizgizonen mende zegoen; Espainiako Unibertsitate guztiak, baita hispanizatu zuten Amerika guztian ere, Aita Sainduak sortuak izan baitziren.

Europa osokoak izan ziren bezalaxe.

Elizaren menpetasun edo dependentzi hau, eta honen bitartez erregeek ezartzen zutena, hartu behar ditugu oinarri bezala; hau dela eta funtzionatzen baitzuen Ameriketara, kolonizazioaren mekanismoak.

Eta Euskal Herrian ere bai, noski.

Espainiak Ameriketara sorrarazi zituen Unibertsitateak ez ziren asko izan, eta gutxi hauek, Metropoliaren behar-nahiak kontutan hartuta; orduan ere Madrid zen zentroa, eta ez ziren herrien beharretara moldatuak.

Bestalde, ikasketa guztiak erlijioari begira antolatuak ziren.

Eta, hala, zientifikoa ez zen ikuspuntuakoa rutina nagusi zen.

Venezuelan, esate baterako, medizinararen ikasketak ez ziren 1763arte sartu, eta hauek ere muga batzuekin. Bolivarren eraginez aldatu ziren 1827an Unibertsitatearen konstituzioak, eta honela lortu zuen José Vargas jakintsua Erretore aukeratzeko modua; ordurarte, Vargasek bere etxean erakusten baitzuen Anatomia, Unibertsitateak debekatua zegoelako.

Independentziaren fruituetako bat izan zen, bada, aldaketa hau.

Conviene que perdamos nuestro idioma, y conviene que no tengamos Universidad. ¡Qué suerte la de los vascos; seremos más ricos y mejores con sólo dejar perder lo que tenemos!

Existía, según él, esa costumbre en Alemania *antes*; todo hace pensar que no sería tan *sabia* cuando no la han mantenido. Es que a la Universidad corresponde el papel fundamental de formar, además o antes del hombre universal, que es importante, al hombre nacional, que no deja de tener su importancia para su proyección universal después.

Pero don Miguel da aquí otra muestra de su *originalidad*, y otra vez a costa nuestra".

² Neuk ez nuen Aita Lizarralde ezagutzen, Oñatiko Unibertsitatea dela eta gai honetaz idatzi zuen liburua ikus ahal izan nuen arte. Geroztik Juanito San Martinekin hizketan, eman zizkidan berriak, eta batez ere honek *Egan* aldizkarian (1986, 1-2) agertu zuen lana ("Nor zen Aita Lizarralde?", 7-11 o.) Eta beragaz nago egiten zuen salaketarekin: Zaldibian, Lizarralderen, jaioterrian, Udaletxean zeukaten argazkia jaitsi zuten zintzilika zegoen ohorezko tokitik. Aipatu dugun liburu honez gain bada *Andra Mari*, beste eder bat. Normala da gauz batzutan egile honekin elkar ez egotea, eta beste bat osorik deskalifikatu eta irain egitza. Hainbeste eta hain ondo lan, bai hitzez eta bai idatziz, egin duen gizonak ez ditugu gure herrian sobera; ezagutza merezi dute herrietan.

Historiarekin gertatzen den antzeko zerbait jazo zen, bada, Unibertsitatearekin; badakizute, India-ko historia ez zela egitazkoa izan askatasuna 1947an lortu zuten arte, ordurarte Britania Handiko Koloniaren edo Inperioaren historia-barruan ezkututzen baitzieten egitazkoa.

Euskalerrian ere, Eliza bide zela sortu zuen gotzai oñatiar honek lehen Unibertsitatea.

Nor zen, bada, gizon hau?

2

Dr. Rodrigo Sáez de Mercado de Zuazola, hau da Oñatiko Unibertsitatearen sortzaile izan zen gizonaren izena.

Obraren aintzinean, beti gizona!

Gure herrian Unibertsitate bat sortzeko asmo tinkoa, asmoa eta obra batera, izan zuen bakarra. Beste Unibertsitateetara joan, gizon euskaldun asko joan da. Hemen sortu behar zela pentsatu eta aurrera berez lan hau bere gain hartu zuenik, besterik ez. Tokitan dago XX. mendeko Unamuno; honentzat, geuk Unibertsitate beretan ez izatea abantail eder bat zen; hala, kanpora irten beharrak beste herriak eta jendeak bisitatzera behartzen bait ginduen, eta haiengandik ikastea onuragarri baitzen! Ez zuen ikusi nahi, eta hau da esan genezaken gutxiena, Espainiako herrialdekoei gugana etortzeak ere egingo zietela onik espainarrei!

Baina Unamuno beste arazo bat da; goazen Don Rodrigorekin.

Honen biografoak: *sasiko umea* / *hijo natural* / bezala aipatzen du. Ez dakigu zergatik, zeren berehala hau eransten baitio: "Nació en la villa de Oñate, en una de las casas situadas en *Kaleberria*, en donde murió su madre Doña Elvira de Zuazola" y "fue su padre Ochoa Ibáñez de Mercado".

Bada gizon handi honen karreraren, harritzekorik:

– Apaizkintzarako tonsura 1480ko irailean hartu zuen, Oñatin.

– Lau orden txiki, irailean bertan, *egun gutxi barru*, eta Logroñon.

– Gero, biografoak galdetzen dio bere buruari, zergatik itxaron behar izan zuen hogeita hamar urte orden Handiak hartzeko.

Egileak sarritan adierazten du bere harridura, biografia honetan ezkutuan geratzen diren hainbat gauza aitortzerakoan. Harritzen da Lizarralde, baita ere, gizon honen karrerak hartzen duen abiaduraz:

– Apaiz egin eta laster, "Estudio General de Salamanca" delakoa pasatzen du.

– Urte gutxi barru (1499) Valencian aurkitzen da *Inkisidore* bezala.

– Hemen doktoratzen da Zuzenbide edo Derecho-ko karreraren, Salamancan egin beharrean, eta salbuespen hau, Alejandro VI.ren dispensa medio dela.

– Gero, 1506an, Napolesen dago; eta Lizarraldek uste duenez, Fernando (Katolikoa) erregearekin.

– Dударik ez dagoena zera da; bidaia honetatik berebiziko ondasunak ekarri zituela, eta bere biografoak dion bezala, "en dinero y en alhajas".

– Astorgako Monasteri baten Abate egiten dute berehala (1507), eta hemendik aurrera, ohoreak eta emolumentuak, soldatak, gehitzen doaz: 1508an Julio II.aren bulaz León eta Salamancako Prioratoak ematen dizkiote, ondasun guztiekin, eta hemendik aurrera, dio Lizarralde harriturik: "En lo sucesivo, don Rodrigo aparece condecorado con el ilustre aditamento de Consejero del Serenísimo don Fernando de sus cesáreas Majestades".

– Valenciako elizaren Preósito egiten dute (1510)...

Eta hara bere biografoaren harridura: ¡"Y todavía era un simple clérigo, no se había ordenado de presbítero!".

Baina oraindik, eta bapatean: subdiácono, presbítero eta gotzai egiten dute!

"¡A todo escape!", Lizarralde fraideak izututa dion bezala.

Eta halaxe jarraitzen du gero: "El sujeto de tan grandes beneficios eclesiásticos requería ya la dignidad pontifical"... "abrigo presentimientos de que el reverendísimo varón mitrado continuará siendo más bien padre de los negocios del Estado".

Fraidea ez da ausartzen gehiegi esatera, bistan da; baina *esaten du*; nahiz eta gero ukendu hau erantsi:

"Sus servicios prestados a los reyes, si bien a reyes tan cristianos y católicos como Fernando y don Carlos, y en tiempos en que la idea cristiana lo invadía todo en España y desde cuando nuestra Nación es la Católica por antonomasia".

Hemen ez dakigu zer pentsa: biografoa bere erretratua egiten ari zaigula ustekabeen, edo, aitzitik, humore finaren bidetik ari dela idazten; jakin nahi nuke idazleak zenbat ezkutatu duen.

Baina hor dihoa don Rodrigo gorantz, azpijan eta zangarte ugarik traba egin arren:

– Mallorkako gotzai egiten dute hurrengo (1511).

– Eta 1512an Iruñean dago!

Hara hemen oso sumagarri egiten zaigun pasartea:

"Está en Burgos cuando en 1512, impelido, sin duda, por conveniencias de los asuntos graves a este tiempo del Reino, que querían la presencia del Consejo de la Corona; la ciudad de Pamplona, asediada por el Duque de Alba y abandonada por su Rey don Juan Albret, que había ido a Francia, acabó por entregarse al Rey Católico bajo la condición de que serían respetados sus Fueros, privilegios y libertades".

Euskaldun batek Nafarroak jasan zuen eraso, inbasioa, kontatzeko bide kurioa hauxe.

Eta gure harridurak beste jauzi bat: Don Rodrigo, Nafarroako Erresumaren gobernadore egiten dute! Meritorik irabazi zuen, beraz, oñatiarrak Errege Katolikoaren aurrean!

Portaera, jokaera, honek Machiaveloren *El Príncipe* izeneko liburuxka famatua gogaratzen digu. Politikari eta idazle ziniko honek Espainiako ereduak erabili baitzituen; Fernando errege katoliko honengandik ikasi zuen Machiavelok lapurtutako lurak, eta herriak, nola tratatu. Eta orain Nafarroan gaudenez gero, beharbada don Rodrigok ezagutzen zuen Bula faltso baten bidez, edo bidegabek, nola sartu ziren, eta gero bertakoen bitartez gorde, atxeki, behar dela ere ikasi zuen Machiavelogandik Italian hainbeste ondasun kargatzen ari zen bitartean.

Hau ez digu Lizarraldeak esaten, baina susmo hori ez hartzea baino hartzea errazago egiten zaigu.

Machiavelo-ren tesia hauxe zen:

"Okupatzen diren estatuak askatasunean bizitzen ohituak badaude", eta hau da Nafarroaren kasua, "hiru bide daude dena gorde ahal izateko: *bat*, hondatu, arruinatu, *beste*, bertara joan eta pertsonalki jendez okupatu; eta *azkenik*, bere legez bizitzen utzi, dirua atera, eta herri barruan *bertako batzuek osatutako estamentua tarteko dela*, pakean eta geldi, tinko, eutsi".

Hau da Fernando Katolikoak aukeratu duen bidea. Euskaldunak jartzen ditu buruan; hara zertarako balio izan duen don Rodrigo Sáez de Mercado y Zuazolak! Eta honen bitartez, baita Jasso bat eta Lizarazu bat ere.

Gero, don Rodrigok alde egiten du, eta 1513an Valladoliden dago, Mallorcako eta beste apezpikutzak ematen dizkieten diruak kontatzen...

Baina ez dezagun ahaztu, kontatzen ari den diru horiek Euskal Herriak izan duen leheneno Unibertsitatea eraikitzekeo destinatua daudela aurretik.

Unibertsitatea eraikitzekeo testamentua eta nekeak

Avilako gotzai zela hil zen don Rodrigo 1547an.

Denbora guzti honetan ez da Avilan bizi, Valladoliden, *Gortean*, baizik. Bitarte honetan, apaiz egin zutenetik hil zen arte, ez omen zen Oñatira itzuli! Hala ere, hil baino lau egun lehenago, egin zuen testamentuan, zituen ondasun guztiak Sancti Spiritus Unibertsitateari utzi zizkion. Eta hemen, harrizko hilkutxa batean dago geroztik:

"En esta capilla (Capilla de Nuestra Señora de la Piedad, Unibertsitateak duen kapera nagusia) en esta capilla –dio fraideak– está el mausoleo de mármol blanco de Carrara 'que se dedicó en vida a sí mismo' el Ilmo. Dr. Rodrigo Sáez de Mercado de Zuazola. En el basamento del mausoleo está la inscripción en latín, que no se sabe quién la escribió".

Behar bada berak idatzi zuen.

Ederra nahi zuen Unibertsitatea bere jaioterrirako, eta hau da gizon honen meritu nagusia:

"... que en esta villa ubiese ejercicio de letras, porque considerada la habilidad de los naturales *desa tierra* con la ayuda de Ntro. Señor Dios tengo por muy cierto que con buenos principios se harían muchos y muy señalados letrados que servirían a Dios y honrarían mucho a *esa patria* (...) que en esa villa se haga un colegio en *que haya maestros y estudiantes que sean naturales de esa villa y de toda la tierra vascongada...*".

Azpimarratua, nirea da.

Hemen baitago meritua!

Elizako gizona izanik, diruak ikastetxe bat eraikitzekeo utzi zituen! Hau da Euskal Herrian izan dugun markatik fuerako gertakari bakarra.

Herri honetan, Elizako gizon izan ez den asko izan dugu elizak eraikitzekeo diruak uztekeo gai izan denik; hara hor indiano ugari, eliza bat eraikitzekeo zeruko atea irekiko dizkietenaren asmoarekin lasai hil direnak. Nik, neuk, ez dut ezer harrizko eliza eder

horien aurka; aitzitik!; Andoainen duguna herriko- seme batek emandako diruekin jaso da, ez dugu emaitza hau ahaztuzeko; baina esker on berezi bat zor diogu euskaldun guztiok Euskal Herriari Unibertsitate bat eskaini nahi izan zion Elizako gizonari.

Esan bezala, don Rodrigo ez zen Oñatira bizi zen artean itzuli; baina hil eta gero hor hartu nahi izan zuen deskantsua.

Jainkoak daki zenbat lanetatik.

Kosta bait zitzaion, bai diruz eta baita ahaleginez ere, Unibertsitate hori eraikitzea. pertsonalki herriratzen ez bazen ere, maiz idazten zuen Oñatiko Udaletxera; han zituen kondizio gabeko lagunak, herritarrak, anaiak.

Oñatiko herriak, bere aldetik, asko lagundu zion bere "seme kuttun" izendatu zuenari ahalegin honetan.

Obra luzea

Luzea izan zen obra eder hau.

Lehenengo jestioak 1535an hasi zituen.

Aita Sainduaren Bula, 1540 arte ez zen lortu.

Eta badu, Bula eta guzti, hala ere don Rodrigok beldurrik:

"... porque –dio fraideak, Lizarralde– como sea tan perjudicial a la Universidad de Alcalá, Valladolid y Salamanca, podría ser que pusiesen algún estorvo en ello, y ansi es menester que no anden por mano de ninguno".

Bazen, bada, gero beti izan den legez, orduan ere zela eta inbidia.

Bulak eta Unibertsitatearen kategoria

Bi Bula eman ziren Erroman:

1. Rodrigo de Mercado-ren izenean.
2. Gasteizko Santa Mariaren kabildoarenean.

Agiri ospetsu honen bitartez, Salamanca, Paris, Valladolid, Alcalá eta beste Unibertsitate handien eskubide eta pribilejio berak aitortzen zitzaikion.

Unibertsitatearen eraikitzea

1541ean eman zuen fundatzaileak Valladolideko Gortean Bula honen bitartez eraikitzeke behar zen eskritura.

1542an egindakoaren bitartez utzi zion bere Patrimonio, ondare, guztia, zuen guztia, Pedro de Gorostarazu Batxiler eta Erretore zenari, diruak eta ondasunak banan bana, denak, zerrenda luze batetan, idatzita.

Eta hala ere, bazuen beldurrik.

Zituen kezka ez zitzaizkan Elizagandik etorri, Koroarekin egin zuen topo!

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea.

Oztopoak

Bulak, Erregearen baimena behar zuen.

Eta Lizarraldeak esaten du, sinplezia handiarekin: "Badirudi, Koroaren kontseilari izan eta Gortean bizi zen batentzat erraza izan behar zukeela azken baimen hau lortzea, baina ez zen hala gertatu: ez zen don Rodrigo hil (1547) eta bi urte gero arte (1549 arte) emana izan.

Bazuen fundatzaileak zituen kezketarako arrazoirik: horretxegatik ez zuen Erregearen Audientzira paperik agertu obra oso aurreratua zegoen arte. Valladolid, Alcalá eta Salamancako Unibertsitateen oposaketari zion beldur.

3

Kurtso normalen hasiera

Ikasketak normaltasunarekin ez ziren hasi 1552-53ko ikasturte arte.

Kolejio-Unibertsitate modura.

Esan dezagun garai hartako Unibertsitateak hiru mailakoak zirela:

1. *Kolejio-Unibertsitatea*

Literatura barruan zuen Unibertsitate-Kolegioa.

2. *Colegio Mayor*

Eskubide eta pribilejioen arabera.

3. *Colegio Menor*

Gutxiago zituena: graduak konferitzeko eta erregearen babes txikiagoaren arabera.

Hara garai hartako Colegio Mayor batzu:

Alcalá-ko San Ildefonso

Valladolid-eko Santa Cruz

Salamanca-ko San Bartolomé

Ez zen gehiago garai hartan.

Badirudi, egileak dionez, Oñatikoak ez zuela Colegio Mayor-en titulorik erabili, nahiz eta honetarako eskubidea izan. Bere barruan, gero, San Esteban izeneko Colegio Menor bat sortu zen, hiru sailtako izenak erabiltzeko eskubidea izan zezan.

"Colegial" zirenak

Denek hartzen zuten, etxe-barruan biziz gero: irakurle, katedradun, Erretoreak berak ere bai, "Colegial" izena.

Testamentariak eta kolegiolak

Don Rodrigoren testamentariak hauek izan ziren:

Ilmo. y Rmo. Miguel Muñoz, Cuenca-ko gotzaia eta erregearen kontseilaria; Mercado de Peñalosa Lizentziatua (senitartekoa) eta Lizentziatua zen euskaldun bat: Sancho López de Otorra.

Hauek izendatu zituzten behar ziren 12 lizentziatuak, eta hauetatik Hizkuntza eta Humanitatetan sobresaliente zen bat; 4 kanonista eta 4 jurista.

Eta 12 kolegiak hauek, lurralde hauetakoak behar zuten izan:

Oñatiko	2
Gipuzkoako	2
Bizkaiko	2
Arabako	2

Gainontzekoak: Gaztela, León, Nafarroa eta Portugal, bana.

Konstituzioa

"A la luz del articulado (87 ziren danetara, lehenengoan), que es como se debe juzgar de la índole, Constitución y régimen disciplinario de nuestro Colegio –dio Lizarraldek– resulta ésta una institución calcada en las normas vigentes de sus contemporáneos: un colegio en que se modelaban hombres eminentes en la austeridad y en el saber; casi la totalidad de los Colegios Mayores de España nacieron al calor de la Religión cristiana, que siendo la única de los españoles llegó a ser verdaderamente católica y *a verificar la unidad nacional*".

Argi dago hemen ere hizkuntzarekin gertatzen den bezala, instituzioak, denak, zentzu politikoan erabili zituztela Espainia *bat* egiteko, kosta a la kosta.

Gaur ikastolaz botatzen dizkigutenak jasoak ditugu aspaldi guk euskaldunok, mendez-mende gaur arte!

Erreformatik

Konstituzio honeri aldaketak egin zizkieten.

Felipe II.ak bidali zuen Licenciado Diego de Arellano Zapata, Ciriaco Kanonigoa, konstituzioak aldatzera 1590ean.

Eta hara Oñatikoen erantzuna:

"El Rector reunió en el claustro a todos los colegiados al día siguiente (de llegar el Comisionado del Rey), escucharon la lectura de la Real Provisión y de los estatutos de la Reforma, y *"dijeron que acataban y obedecían* todo lo que se les intimaba por el Juez; *pero en cuanto a su cumplimiento* recordaban la apelación interpuesta contra el visitador extraordinario, el licenciado Aréllano, y que, *por tanto, era nula* mientras subsistiese la

apelación", que directamente iban a *perjudicar "lo dispuesto por los testamentarios del fundador de la Universidad, y confirmado por bulas apostólicas y provisiones y cédulas reales, y jurado por los colegiales"*.

Hemen ikusten da Fueroaren arabera Euskalerrriak zuen erantzuteko modua.

Dirua eta ikasleak gutxitzen

Unibertsitateak 1551an: 347.971 marabediko errenta zuen.

Kobratu behar ziren errenta batzu ezin kobra, eta laster geratu zen errenta honen erdian. Dirua jaitsi zen arabera jaitsi ziren ikasleak ere:

XVI.ean	300dik gora
XVII.ean	200
XVIII.ean	katedra batzu kendu

Oñatiko udalak eta hiru probintzietako laguntzak eusten diote.

Eta hemen sortzen da San Esteban Kolegioa (Colegio Menor), 1584ean Dr. Rodrigoren senide egiten zen Félix de Zabala sendagileak utzi zuen diruari esker.

Hau ere 1695erako agortu zen.

Eta hara zer dion Lizarraga fraideak gure herriaren esku zabalaz:

"Las familias acaudaladas de Oñate, lo mismo que las del País en general, fueron muy inclinadas a dejar parte de sus bienes para dotación de memorias pías: de los siglos XVI y XVII son las grandes instituciones de *caridad cristiana* en nuestra patria".

Badakigu ondo aski karitate horien eragile apaizak eta fraideak izaten zirela; edo goragoko Eliz-agintariak.

4

Denbora batean ukatu ondoren, 1821ean hasten dira hiru probintzietako agintariek berriz diru-laguntzak ematen.

Jakingarria da, hemen, *San Inaziok ere izan zuela Unibertsitatea bere ordenaren mende jartzeko asmoa*. Badirudi orduan Loyolako Inazio zena interesatua zegoela arazo honetaz, beste senide egiten zen P. Francisco Araozen bitartez. Lizarralde fraideak aipatzen du gaia behin baino gehiagotan. Batean, Aita Araozek 1540an Bergaratik ("mi patria") idazten duen eskutitz batean; beste behin, zuzenki mintzatu zitzaion Don Rodrigori Valladoliden. Eta hau hil zenean, Frantzisko Araozek idazten du (1548go martxoak 12) Bartzelonatik, jakin nahiz ea nor geratu den Unibertsitatearen arduradun. Baina don Rodrigok bere bidea jarria utzi zuen. Jesusen Konpainiak Oñatin kolegio bat ireki zuen, eta gutxi barru Bergarara joan zen.

Badirudi, hasieran, josulagnek hemen dotriña euskaraz erakusten zutela, egileak dionez.

Unibertsitatearen zoria

Frantziak XVIII. amaieran (1793-1794) erasotzen duenean, Oñatiko irakasleak Gasteizera ihes egiten dute (1794eko azaroaren 23an), hemen dirua lortu eta Oñatira joan ziren traste bila ikastetxea Gasteizen jartzeko asmoarekin.

1804: hiru probintziak jartzen dituzte diruak berriz katedrak ordaintzeko.

1807: *Plan berriarekin* mehatxatzen dute Madriletik; eta plan berri horretan, egia da, ez da Oñati ageri; geratzen dira, bai: Salamanca, Alcalá, Valladolid, Sevilla, Huesca, Cervera, Santiago eta Oviedo.

Gero, zera iote handik Errege-Orden baten bidez: "*los fondos de las Universidades de Oñate y de Osma se agregasen a la de Valladolid*".

Hortan gauzak, 1808an, Carlos IV. Baionarantz dihoala, Napoleonen mende eta beldur, eskaera bat egiten zaio Donostiatik pasatzen denean. Ahulezia hartan, baietz esaten die gipuzkoarrei, eskaera hori kontuan hartuko duela.

Eta halaxe da:

"*No tiene duda* –esaten du Madrilen eginda, edo hemen egin eta Gortean berea balitz bezala eman dutena; nola nahi, ez da Madriletik inoiz gure egoera hain ongi ulertzen duen agiriarik– *no tiene duda en que hallándose dicha villa de Oñate en el centro de dichas provincias, cercanas a mucha gente de Navarra, montañas de Santander y la Rioja, se han seguido los mayores beneficios de sus naturales de la existencia de dicha Universidad, la distancia que hay de Valladolid y Zaragoza de los pueblos principales de dichas provincias es muy notable; pues excede de 40 leguas, capaz de retraer e imposibilitar a sus naturales el emprender unos viajes tan largos, y una carretera tan costosa, a la que agrega la mayor carestía de mantenimiento que se experimenta, como es público y notorio*". / "*Es igualmente constante que al paso que dichas Provincias Bascongadas, Montañas de Santander y de Navarra son de las más pobladas del Reyno, sus medios son cortos, y poquísimos los que tienen disposición para sostener los gastos indispensables para sostener sus hijos fuera del País, y darles una carrera...*".

Egitan, geuk geok ez genduen hemendik defentsa hoberik egingo.

Askotan pentsa izan dut, Unamuno batek inoiz irakurri ote zuen textu hau.

Baina Madriletik honelako ulerkuntza sortu zen une hura, oraindik frantsesa barruan zegoela izan zen; behar zituzten kemen guztiak, eta geureak batez ere. Hau izan da betidanik Espainiaren jokia.

1807an gaude, eta ezer konpondu ez denez gero, protesta egiten dute egin zezaketenak: Antonio Gorosabel, Erretore-ordea zen Francisco Antonio de Andraca, Ignazio Luis de Astarloa, Félix María de Oñate eta Juan Martín de Iturbe, denak doktoreak.

Eta hauez gainera: Oñatiko Udaletxeak.

Unibertsitatea arriskioan zegoen oraindik, erabakia hartua izan baitzen; eta orain Valladolideko mandatari bat agertzen da, José de Cartagena; giltza eskatzen du, eta Unibertsitateko etxe, mueble eta besten inbentarioa egiten hasia da.

Unibertsitatearen zuzpertzua

Heldu zen 1812: Fueroak itzultzen dizkigute, Fernando VII etorri da Frantziatik, eta hila zegoen Unibertsitatea (inbentarioa egina eta giltza entregatua) berriz lanean jartzeko agindua dator Madriletik.

Ezin sinestekoa!

Han dihoaz Valladolidera, eraman zituzten paperen bila; eta probintzietan hasten dira dirua prestatzen, eta Oñatiko Udala ere bai, beti bezala. Gipuzkoak 8.000 erreal, bi katedrarako; Bizkaiak beste hainbeste; Arabak, berak bakarrik, 5.700 erreal jarri zituen.

Lehenengo aldiz, Nafarroari ere eskaini zitzaion partaidetza, baina honek ez zuen onartu.

Hala onartu zen, 1815eko apirilak 4 zituela, berritze hau.

Bost urte barru, *1820rako, 13 katedra zituen:*

Elementos de matemáticas	72 ikasle
Lógica y Metafísica	48 ikasle
Filosofía Moral	11 ikasle
Derecho Natural y de Gentes	77 ikasle
Historia y Elementos de Derecho Romano	70 ikasle
Historia y Elementos de Derecho Español	16 ikasle
Constitución y Derecho Político	1 ikasle
Economía Política	10 ikasle
Práctica Forense y Retórica	3 ikasle
Prenociones Económicas	15 ikasle
Instituciones Económicas	28 ikasle
Historia Eclesiástica	15 ikasle
Concilios Generales	5 ikasle

Hau da Unibertsitateak izan zuen aldi aberatsena.

Bai diruz, eta baita ikaslez ere.

Baina Probintziak nekatu egin ziren diruan ematen. Eta hau, Unibertsitatei handitzeak eskatzeko garai kritikoa, bibliotekak handiagoak eta berrituak: Fisika, Kimika, Zoologia, Botanika, Mineralogia, Agrikultura e.a., textoak behar zituzten eta garaiari zegozkionak.

Bigarren Irakaskuntza jartzera zihoazenean.

1822ko Azaroak 4. kolegio huts izatera jaitsi zen.

Berriz hasi ginen erreguka, baina ez ziguten kasorik egin.

Hemen amaitu zen.

Probintziak, berriz, dena galdua dagoenean elkartzen dira!

1829an kolegio hutsean geratzen da azkenik; laster hasiko da lehengo karlistada, etorri zaigu Bergarako eraso.

1843an, gure herriari moztu dizkiote hegoak, eta Oñatiko Unibertsitatearen ordeaz, Kolegio bat irekitzen digute Gasteizen.